

ARANTZAZU LOIDI, BERTSO ESKOLAKO LEHEN EMAITZA

*Izena: Arantzazu Loidi Garitano. Nongoa: Aretxabaletarra. Jaioteguna: 1967eko otsailak 17
Lanbidea: Kazetaria. Hamabi urterekin hasi zen ikastolan bertsoan ikasten eta Eskolarteko
Txapelketan ordoren. Urtebete baino gehiago da kantatzeari utzi ziola.*

Testua: Izaskun ELLAKURIAGA

Argazkiak: I. GALLEGO

Gogoan duzu lehenengoz bertsoa entzun zuenueko aldia?

Oso txikitan izango zen eta seguruenik irratiz.

***Nola hasi zinen bertso-tan?**

12 edo 13 urtekin hasi nintzen ikastolan, eskolaor-duetatik kanpo egiten zen ekintza batetan partehartuz. Eta horren ondorioz txapelketetan zein herriko saioetan kantatzen hasi nintzen.

***Momentuan ez duzu plazatan kantatzen. Noiz utzi zenion plazatan kantatzeari?**

Ez daukat egun konkreturik esaterik. Dena gauza ezberdin askorengatik gertatu da, baina gutxi gora behera urtebete baino gehiago izango da.

***Eta zergaitik utzi duzu?**

Arrazoi asko izan dira tartean. Alde batetik beste lan batetan oso sartuta egonik, ez dut eduki bertsolaritzari nire ustez dedikatu behar nion beste denbora eskeintzeko astirik eta horrez gain bizitzako beste hainbat gauzek ere denbora kentzen didatelako. Bestalde, bertsozaletasuna beste era batera bizi dut orain. Beharbada zaletu bezala gehiago bizi dut orain, beste ezer baino.

***Berririo itzultzeko asmorik?**

Plazatara ez dut uste. Hala ere, lagun artean edo bertso eskolen giroan jarraitzea nahi nuke. Eta bertso giroari eustea nahi nioke, eta batez ere nire aportazioak beste arlo batetan eginez; Elkartean egin daitezkeen hainbat lanetan lagunduz, ... Baina plaza



batetan berriro kantatzen ez dut nire burua ikusten.

***Bertsotan egiten zenue-nean emakume izateagaitik arazorik izan al duzu inoiz?**

Gaurko ikuspuntutik ikusita eragozpenak izan ditudala ikusten dut. Hala ere, momentu hartan, inguruan nuen giroarengatik eta bakarrik ez nintzelako sen-

titzen, lagun talde baten laguntza nuelako, bertsozaletasuna beste modu batera bizi nuelako, ez nintzen horretaz ohartzen. Baina, bai, orain konturatzen naiz eduki ditudala oztopoak. Batez ere, gizonezkoen mundua izan den arloan aurpegia ematea ez delako erreza izan. Gizon bati buruz gauzak esan badira, "ez duela ahots ona, ..." emakumearengaitik gauza bat gehiago esaten da: "emakumea da". Beraz, gizonezkoek gainditu behar ez duten horma bat dela esanahi du emakumearentzat. Gaur egun gutxiago, baina plazatan emakumezko gutxi ginenean arazoa handiagoa zen. Bertsolariekiko harremana, gaiak, ... tesis bat egiteko beste.

***Bertsolaritzak gizonezkoan mundua izaten jarraitzen du?**

Gutxiago, baina oraindik bai.

***Era berezian tratatu al zaituzte inoiz emakumezkoa izateagaitik?**

Bakoitzak irudi bat du eta irudi horrek besteengan harrera bat sortarazten du. Beharbada, ez dakit neska naizeleko, ... baina hala-ko paternalismo bat bai sentitu dut askoren aldetik, eta beste askoren aldetik adiskidetasun handi bat. Eta hori ere tratu berezi bat da, eta gainera eskertzekoa. Eta ez dut uste

emakumea izateagaitik izan denik. Guzti hori hasieratik izan dut, nirekin hasi zirenak lagunak izan baititut beti eta giro horretan oso babestuta sentitu naiz, baina beste edozein mutil sentitu zitekeenaren antzera.

***Zuk kantatzen zenuen garaian eta orain emakumearen egoerak bertsolaritzan ezaugarri berdinak al ditu?**


Nik uste dut hobetuz doala, oztopo batzuk gainditu direla uste dut. Lehen irten behar izaten genuen emakumezkook belo baten antzerako zerbait pasatu behar izaten genuen. Orain gauzak gardenago egiten dira. Ez dago inolako hormarik apurtu beharrik plazatan kantatzeko. Horretan aurreratu da. Baina gauza batzuk, oso sutilak, halaxe izango bailiran iraun egiten dute eta beste gauza batzuetan okerrerantz egiteko arriskua ere badagoela ikusten dut nik. Esaterako, emakume bakarra dabilenean gauza anekdotiko gisa jotzen da. Baina ugaritzen hasten diren momentuan, arrisku bat ekar lezake: modalidade bat sortzeko arriskua. Esaterako, emakumeekin bakarrik gauzak egiten hasteko tentazioa batzuren aldetik. Eta horri ere oso artifiziale deritzot.

***Martxoaren 8aren bueltan egiten diren bertso saioetan nabaritzen da. Modalidade bat sortzeko arriskua zuek askotan kritikatu duzuen.**

Bai eta gauza bera, kasu honetan, ez dakit koinzidentzia den edo ez emakumeari buruzko ale monografiko hau. Nik beti salatu izan dut, martxoaren 8a dela eta emakumeek bakarrik osatutako bertso saioak egitea. Hori postizo hutsa da eta arrisku asko ekar lezake. Kiroletan gertatzen dena, adibidez. Oraindik bertsolaritza bakarrik dago, ez da futboleko gertatzen den antzera, gizonezkoena eta emakumezkoena sailkatzen dira. Eta bertsolaritzan ez dadila horrelakorik gertatu! Beharbada zerbait hipotetikoa izango da eta ez da gertatuko, baina neurriak hartzea ez dator gaizki.

***Bertso eskoletan dabilen beste neska ikusita, zergaitik uste duzu plazan ez dela berdin gertatzen?**

Mutilekin ere gertatzen da, bertso eskoletan dabilen guztiak ez daude plazatan kantari. Gertatu behar den gauza bat da. Ez dago pentsatzerik denek plazatan kantatu behar dutenik, nahikoa da bertsozale egitea-



rekin. Paper hori da bertso eskola batek jokatutako behar duena eta horrek bertso saioetan entzuleen artean emakumezkoak gero eta gehiago izatea ere eragin du. Baina horrez gain, beste mila arrazoi egon daitezke bai neska batek, zein mutil batek adin konkretu batetan mundu hori utzi dezan. Arrazoi asko aukera pertsonalak izaten dira eta arlo hori oraindik aztertzeke dagoela uste dut.

***Edozein emakume izan daiteke plazako bertsolari edo ezaugarri bereziak izan behar ditu?**

Horrek zerikusi zuzena du bertsolari bakoitzak antolatzen duen bere estereotipo edo bertsolari karetaekin. Egitea eta jendearen gustoko izatea, azken finean. Hori egin dute Maddalenen, Estitxuk, Peñak, Andonik, ... eta guztiek. Gizonezkoen artean ere



badaude izakera ezberdinetakoak. Baina, argi dago, oraindik denak dutela norbere izakera ezkutatu beharra. Eta emakumezkoetan oraindik gehiago. Eta bestela, galdetu Maddaleni, askotan agertu behar duen agresibidade hori benetan horrela den edo plan-ta bat den. Eta hori nire ustez oso tristea da orokorrean bertsolaritzan. Norbere izakera hor egoteko forzatu beharra, neretzako pertsonalki galera handia da eta beharbada horrek neregan eragina izan du.

***Bertsolaritzan nolakoa izango da emakumearen etorkizuna? Beti hitzegingo dugu gazteei buruz, edo ezkondu eta ama diren bertsolariak ere izango dira?**

Hori seguruenik gauzak asko normalizatu eta gero gertatuko da. Inork gutxik imajina-tzen du, Kristina Mardaraz kasu, ezkondu,

seme-alabekin eta plazarik-plaza bertsotan. Horrek norberaren bizitza pertsonalean sakrifizio handia eskatzen duen neurrian nahiko zaila ikusten dut nik. Baina karakter hori bereganatuko duten emakumeak egongo dira, gizonezkoek berenganatu duten antzera. Uste dut oso debate polita dela, ezin da etorkizunean zer gertatuko den esan, baina nagoen tokitik oso gustora ikusten dut mundu hori eta plazan aportatzea ahaztuta daukadan antzera, erreflexio modura gustatu litzaidake ildo horretatik jarraitzea. Baina horretarako bertsolaritzan gauza asko aldatu behar dira. Eta gauzak aldatzen diren neurrian, emakumeak izan ditzakeen arazoak ere aldatzen joango dira. Oso prozesu konplexua da guztia.